Batzar Nagusia • Asamblea General

ABIAN zurekin

Azaroak 28 • 11:30
BEC / 1. pabiloia

28 Noviembre • 11:30
BEC / Pabellón 1

**Andoni Ortuzar**
**BATZAR NAGUSIA. 28-11-2021. Barakaldo.**

**El único discurso válido será el pronunciado por el orador en el acto.**

**Balioa izango duen diskurtso bakarra izango da hizlariak bertan eskainiko dueña.**

Alderdikideok, alderdizaleok, abertzaleok, egunon! Egunon eta mila esker gaur gure Batzar Nagusiaren amaierara etortzeagatik! Gaurko ekitaldi hau hasi dugu Covid-19aren biktimak gogoratzeko eta omentzeko isilunea eginez. Puntu eta jarraia egitea nahiko nuke orain, txalo zaparrada bero-bero batekin, pandemia latz eta neketsu honetan zaintzaile eta zaindari izan ditugun guztiontzat. Lehendakari, zuretzat eta zure lantalde osoarentzat; bereziki, oso bereziki, Osakidetzako langile guztientzat, ikertzaileentzat, epidemiologoentzat eta espezialistentzat: hamaika mila esker! Behin eta berriz jartzen dizkizueten oztopoen gainetik, hamaika mila esker gizarte hau zaintzeagatik!!!

‘Abian zurekin’ lelopean batu gara gaur. Abian, bai, martxan, berriro ere, Alderdi gisa, Herri gisa. Martxan berriro Euskadi zutik jartzeko, gizarte gisa etorkizun berrirako bidea egiteko. Abian zurekin, zuekin. Oso garrantzitsua da detaile hori. Martxan jarri behar dugu… baina elkarrekin egin behar dugu, denok batera. Lehenengo eta behin, alderdikide guztion artean, zuek zaretelako, zuek izan behar duzuelako Alderdiaren eragile eta motore. Gure aberriak biziko duen aldi berri honetarako eragile nagusi izan behar duzue. Eta, are inportanteagoa den zerbait, zuen bidez, martxan, martxan jarriko gara Euskadi osoarekin, gure gizartearekin, gure jendearekin. Gizartea da egin beharreko bidea markatu behar duena, erabakia hartu behar duena. Eta, bide honetan, Euzko Alderdi Jeltzalea prest dago! Gu prest gaude gidaritza hartzeko. Hori bai, lehenengo eta behin, gure jendearen nahiak eta beharrak entzun behar ditugu! Horixe da ‘Entzunez eraiki’, Herriari entzutea, pertsonekin hitz egitea… eta, gero, gauzak egitea, gauzak abian jartzea. Horretarako, Euzko Alderdi Jeltzale sendoa behar dugu, indartsua; Euskadi, gure Herria, eramateko nahi eta merezi duen etorkizunera.

Hemos visto en el vídeo de inicio de esta jornada que el PNV ha estado siempre donde tenía que estar en cada momento decisivo de la historia de Euskadi. Ha estado donde tenía que estar y ha hecho lo que había que hacer, lo correcto, lo que necesitaba nuestro País. Con esa garantía, con ese aval, nos presentamos ahora otra vez ante la sociedad vasca para decirle con toda honestidad: estamos en un momento transcendental. Tras el COVID y las consecuencias sanitarias, sociales y económicas que ha traído, hay que actuar, hay que hacer que Euskadi salga bien de este desafío colosal. Y el PNV está dispuesto, como en otros momentos tan decisivos de la historia, a situarse al lado de la sociedad vasca y llevar a buen puerto este nuevo reto de País.

Cada momento necesita su solución, cada desafío necesita su respuesta. No hay soluciones ni respuestas que valgan para siempre. Si alguna convicción nos ha traído esta maldita pandemia es que nos llega un nuevo tiempo que necesita nuevas soluciones, nuevas respuestas. Y nuestra obligación, diría que también nuestra vocación como partido líder, es buscar esas soluciones, buscar estas respuestas. Es lo que vamos a hacer en los próximos meses. Y no lo vamos a hacer encerrados en Sabin Etxea, ni en nuestros Batzokis. No lo vamos a hacer tampoco con sesudos Think tanks. Lo vamos a hacer en la plaza pública. Y con la gente. Conversando con nuestra sociedad, con la sociedad civil organizada, preguntándole por sus expectativas, por sus deseos, por sus anhelos, también por sus miedos y temores. Escuchar, debatir, darle todas las vueltas que haya que darle a todas las inquietudes sociales, y luego acordar una hoja de ruta para llevar a Euskadi con garantías al año 2050, fecha simbólica que internacionalmente se ha puesto como horizonte para darle viabilidad y futuro a nuestro planeta. Que es la viabilidad también de nuestro proyecto abertzale: Euskadi Nación europea.

Sekretu bat esango dizuet. Nik, dagoeneko, idatzi egin diot Olentzerori. Zazpi abarketa pare eskatu dizkiot (eta katiuska pare bat, elurretarako). Eta ez dakit laburregi geratu ote naizen, datorren urtean Euskadi goitik behera ibiliko dugulako. Punta batetik bestera. ‘Entzunez eraiki’ izena jarri diogu prozesuari, eta Euskadi osotik eramango gaitu. Orain esango duzue: zer da hori? Ba, entzuketa aktiboko prozesu bat. Zertarako? Gure herrikideekin, gure auzokoekin hitz egiteko EAJren agendan inoiz baino presenteago egongo diren gaien inguruan: klima-aldaketa; trantsizio ekologiko, sozial eta digitala; emakume eta gizonen arteko benetako berdintasuna; kalitatezko zerbitzu publikoak; arazo demografikoa; gure gizartearen zahartzea eta zaintzea; euskal nortasun nazionala bermatzeko behar dugun autogobernua; euskararen biziraupena… eta guzti hori gure Herriaren ongizateaz gain, jakina! Eta, elkarrizketa horri esker, etorkizuneko Euskadiren oinarriak jarriko ditugu. Zergatik egiten dugu orain? Momentu kritiko batean gaudelako. Eta EAJk zerbait egin badu, hori izan da gure aberriak bizi izan dituen momentu kritikoetan asmatzea: Gerra garaian, diktaduran, trantsizioan, krisi industrial eta ekonomikoetan, giza eskubideen defentsan... Bidearen alderdi zuzenean egon gara beti. Herri honek behar zituen erabakiak hartu izan ditugu beti. Orain ere egingo dugu: gure herriari entzungo diogu eta, elkarrekin, erabakirik egokienak hartuko ditugu, herri osasuntsuagoa izateko, solidarioagoa, oparoagoa eta askeagoa. Zalantzarik ez izan! Euzko Alderdi Jeltzaleak Euskadi lideratuko du berriro ere! Oraingo honetan ere bai, beti egin izan dugun moduan! Eta denek ezin dute hori esan. Guk Bai! Eta harrotasun osoz esaten dugu, gainera. Euzko Alderdi Jeltzalea gara!

Vienen tiempos nuevos. Eso es seguro. Ahora estamos acogotados y acogotadas por la situación de pandemia. Es lógico que la gente se preocupe. Pero miremos más allá de la pandemia. Nos ha traído cambios radicales. Y parece que vienen más. Lo podemos ver como una amenaza. O lo podemos ver como una oportunidad. Yo no comparto lo de que “cualquier tiempo pasado fue mejor”. Lo mejor está por llegar. Y está en nuestras manos que así sea. Y tenemos que hacerlo entre todos y todas. Muchas veces se nos llena la boca poniendo énfasis en la pluralidad de la sociedad. Pues seamos coherentes con esa pluralidad. Saquémosle chispas a la pluralidad. La pluralidad es

real. Estamos convencidos y convencidas de que hoy, más que nunca, hay que abrirse a la sociedad. A la plural sociedad con la que convivimos. Es lo que hemos hecho con el cambio en nuestros estatutos para crear una nueva figura de vinculación del partido con la sociedad, más allá de la militancia. La creación de E-erakundea, de la plataforma 'ZukEsan' y de la figura de 'bidelagun' pretende lograr más y mejores nexos de unión del partido con la ciudadanía, permitir a la ciudadanía llegar directamente al corazón del Partido. Y en breve pondremos en marcha 'Entzunez eraiki', un ambicioso proceso de escucha activa, de conversación con la sociedad. Una conversación con fundamento. Con rigor. Pueblo a pueblo, territorio a territorio, para acabar en una gran conversación nacional. Ese va a ser nuestro empeño y trabajo durante casi un año. Hemos hecho un diagnóstico como partido para facilitar la tarea. Un diagnóstico en el que aparecen todos los temas candentes: las transiciones ecológicas, social y digital; el desarrollo económico que reparta la riqueza con justicia y cree empleos de calidad; la igualdad real entre mujeres y hombres; los servicios públicos de calidad; el grave problema demográfico que tenemos y nuestro envejecimiento como sociedad; el autogobierno que necesitamos para garantizar la identidad nacional vasca y la supervivencia del euskera, además del bienestar de nuestro Pueblo… Hemos hecho ese diagnóstico, además, dejando que fueran personas de acreditado prestigio pero no afiliadas quienes nos pusieran sobre la mesa el primer análisis para que desde el comienzo hubiera aire fresco. Es un diagnóstico que está perfectamente alineado con los parámetros internacionales más avanzados. Y que tiene mucho que ver con esos 17+1 Objetivos de Desarrollo Sostenible de la Agenda 2030. Alineados con lo que nos decían la representante de la ONU, Belén Sanz, y el Premio Nobel de la Paz, Riccardo Valentini. Con ese diagnóstico y con toda nuestra ilusión, nos comprometemos a hablar con la sociedad vasca, nos comprometemos a escucharla, nos comprometemos a, de ese diálogo, sacar las mejores propuestas, las medidas más necesarias, los proyectos más ilusionantes. Y nos comprometemos, que es quizás lo más relevante, a llevarlas a la práctica. Sí. No hablamos por hablar, ni para quedar bien. Conversamos para luego actuar. Como Partido, el PNV se compromete con este Pueblo a retomar el camino hacia el futuro, un futuro de bienestar, crecimiento y libertad para Euskadi.

Alderdikides, tenemos ante nosotros y nosotras un gran reto. Tan importante como pudo ser en los setenta la Transición, o el de los ochenta con la institucionalización del País, o en los noventa cuando hubo que salir de aquella profunda crisis económica, o en los dos mil para poner fin a la violencia que estaba consumiendo al País, o más recientemente para volver a hacer frente a una crisis financiera que estuvo a punto de llevarse por delante buena parte de nuestro empleo y nuestra economía productiva. En todas y cada una de estas ocasiones acertamos e hicimos lo que había que hacer. Y es importante remarcarlo ahora que parece que hay que cambiarlo todo: en todas esas ocasiones, hubo un elemento fijo, presente. Un partido, el PNV, que sabía lo que tenía que hacer y contaba con la fuerza suficiente y el apoyo social necesario para meterse en la aventura. Ahora también. Tenemos un Partido fuerte, sólido, con un gran arraigo social y una gran presencia institucional. Gobernamos la mayoría de las instituciones del País, tanto en la Comunidad Autónoma Vasca como en Nafarroa, y estamos

presentes en la Mancomunidad de Ipar Euskadi. Somos influyentes en Madrid y se nos escucha con respeto en Europa a pesar de nuestra pequeñez, porque hacemos las cosas bien y damos estabilidad allá donde estamos, algo que parece un milagro con la deriva populista y extremista que estamos viendo en medio mundo. Con esa fuerza, con ese acervo, tenemos ahora que volver a acertar. Sé que vamos a acertar porque Euskadi necesita que acertemos. ¡¡¡Volveremos a acertar!!!

Y más vale que sea así, porque lo que tenemos alrededor, me refiero al mundo político, no es muy alentador. Ahí tenemos a unos y a otros haciendo supuestas cuentas de pactos y alternativas a dos, tres y ocho años vista. ¡Cuánto les importa lo que pasa hoy en el País! ¡Qué visión de País más generosa! Pero es que, además de estar fuera de lugar porque ahora no toca hablar de eso, demuestran una tremenda falta de respeto a la ciudadanía. Sin que ella haya hablado ya se están repartiendo el supuesto botín. Que sigan haciendo sus cuentas. Son cuentas en la barra de hielo. Que apunten allí todo lo que quieran: el solillo de la primavera del 23 estoy seguro que derretirá la barra de hielo y las cuentas hechas sobre ella. Así que nosotros y nosotras, a lo nuestro, sin despistarnos. Ellos a lo suyo, al juego de tronos; y nosotras y nosotros, a lo nuestro, Euskadi y su futuro. Ha sido así durante los últimos cuarenta años y así va a seguir siendo.

Puntu honetan, aipamen berezi-berezia egin nahi nuke euskal gazteriarentzat. Hitz hauek zuentzat dira, gazteontzat, EGIkideontzat. Ikusi duzue Alderdia epe luzera begira jarri dela. 'Entzunez eraiki' jarri nahi dugu abian. Eraiki nahi dugu, bai. Eraiki, batez ere belaunaldi berrientzat. Horregatik, zuekin egin nahi dugu hori, zuekin eraiki. Zuen ordua da, bai eta zuen erantzukizuna ere. Gure Aberria zuen Aberria ere badelako: etorkizuneko Euskadi. Zuen ekimena behar dugu, zuen bultzada, zuen ilusioa, zuen konpromisoa, bai eta injustiziaren kontra altxatzeko eta kritiko izateko duzuen gaitasuna ere. Konplexurik gabe, eta alderdirik onenean zaudetela jakinik. Zuei dagokizue lekukoa hartzea. Erronka ederra daukagu, daukazue aurretik: Aberrigintza, herri bidezkoa eraikitzea, solidarioa, iraunkorra, euskalduna Herri askea! Kanpamentu base ona daukagu. Orain, aurrera egin behar dugu. Gazteok, zuen ordua da! Lepoan hartu eta segi aurrera! Honekin, amaiera emango diogu Batzar Nagusi atipiko bati, gorabehera askorekin antolatu eta egin behar izan dugun batzar honekin. Aurrekoetan, gure topaketa nagusiaren elementu zentrala izaten zen Euzkadi Buru Batzarra aukeratzea eta aldarrikatzea. Oraingo honetan, bestela egin behar izan genuen, eta EBB berriak urte bete darama lanean. Baina, gaur eta hemen, zuon guztion aurrean, Alderdiaren ordezkari guztion aurrean, EBBko burukideei eskatu nahi diet honaino igo daitezela. Pertsona horiek izango dira, ibilbide honetan zehar, Alderdia norabide onean eraman beharko dutenak. Mesedez, burukideok, igo zaitezte oholtzara.

Somos un equipo potente, sólido, unido. Estamos unidos, unidas por Euskadi, unidos por el futuro de este País. Unidas para caminar hacia la libertad de nuestra Patria. Pero, sobre todo, unidos porque os tenemos a todos vosotros y a todas vosotras al lado. Sois nuestra fuerza, sois nuestra argamasa, sois nuestra seguridad. Batasuna eta Indarra. Somos el PNV, estamos aquí para liderar a este Pueblo en el camino hacia su libertad. El PNV, el infatigable caminante que nunca desfallece, emprende de nuevo la marcha. Con los oídos abiertos, con los ojos atentos, con los deseos de nuestra

ciudadanía bien guardados en la mochila, con la sociedad vasca como ‘bidelagun’ y la makila bien sujeta, el PNV inicia una nueva travesía.

Askatasun Eguzkia basotik irten da, jeiki-jeiki euzkotarrak, laister dator eguna!

Gora Euskadi askatuta!!!